ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 20a, ostirala • 144 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

518/2024 Foru Agindua, azaroaren 8koa. Hutsik uztea Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1115.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia

Irailaren 27ko 375/2024 Foru Aginduaren bidez (ALHAO, 115 zk., 2024ko urriaren 9koa), Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko zerbitzuburuaren lanpostua (kodea: 1115.001) lehiaketa espezifikoaren bidez betetzeko deialdia egin zen.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu denez eta ez denez izan parte hartu duen interesdunik, zerbitzu eginkizuna hutsik geratu dela deklaratzea dagokio.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hutsik uztea Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren buru lanpostua (kodea: 1115.001) berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia.

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundearen aurrean; hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin loturik– jasotakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 8a

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:19 Z